



Hirigintza jasangarria, Naturgintzako jardunetan

TOLOSA ▶ Hil honen 24tik 28ra hitzaldiak, erakusketa eta mahai inguruak izango dira Kultur Etxean

XEDEA ▶ 'Hirigintza sostengaezina?' izenburupean, «biziak jarraitzea» izango du helburu ekimenak ▶ 3



Zizurkilgo herria gehiago ezagutzeko zortzi zertzelada

ZIZURKIL ▶ Joxin Azkuek *Zizurkilgo ondarea eta baserriak* CDa egin du, non Zizurkil Goiko eta Beheko txokoak, paisaiak eta bitxikeriak biltzen dituen. CDa aurreko astean aurkeztu bazuen ere, eta bertan hamaika argazki biltzen baditu ere, HITZAK horien

artean zortzi aukeratzeko eskatu dio egileari. Hala, herriko kas-koa, Fraisoro, Pausenea, Zubimusu, Muñoa auzunea, Saratxoeta-erreak, Andrezketa eta Orreagako mugarriak hautatu ditu. Irudian, CDan ikus daitekeen beste argazkietako bat. J. AZKUE ▶ 4-5

NEKANE TXAPARTEGI ▶

«Torturapean deklaratu nuela azaldu dut epaigelan»

«Gogorra izan da», dio asteasuarrak ▶ 6

ENEKO KARRERA ▶ EHNE



GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

«Sektorea hil egingo da egoera aldatu ezean»

Baserriaren geroaren kezka azaldu du amezketarrak ▶ 2

hitza
argazki
lehiaketa

bidali argazkiak

ARGAZKIAK NORA BIDALI

- ▶ P. elektronikoa: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
 - ▶ Postaz: Argazki lehiaketa. Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza. Araba etorb 5, atzea • 20400 TOLOSA
- Nahi baduzu, argazkiak Tolosako edo Leitzako HITZaren egoitzetara ekarri
- OINARRIAK:** www.tolosaldeko-hitza.info

Sari nagusia

BIDAIA paregabe bat zure neurria

2 laguntzat 5 eguneko egonaldia, mantenu erdiarekin Asturiasen edo Costa Bravan



Bidaia Agentzia
bidaide
www.bidaide.gruposercor.com

Erniobeia, 6-behea • 20150 Villabona
Tel.: 943 692 693
bidaide@gruposer.com

ZOKETA APARTAK

PARTE-HARTZAILE ETA BOTOEMAILE guztien artean HITZaren motxila eta mendiko gerriko poltsa zozkatuko dira



ENEKO KARRERA ▶ GIPUZKOAKO EHNE-KO LEHENDAKARIA

«Egoera aldatu ezean, sektorea hil egingo da, isilean»

Baserriaren geroarekin kezkatuta dago amezketarra; salmenta zuzena aldarrikatu du, eta gizarteari benetako egoeraz ez jabetzea egotzi dio

LEIRE OLAETXEA - BERRIA

Esnetarako behiak ditu Eneko Karrerak (Amezketak, 1972) Lizaga baserriko ukuiluan. Gipuzkoako EHNEko lehendakariak «alarma gorria» piztuta dagoela ohartarazi du, eta administrazioei eskatu die hartu beharreko neurriak baserriarekin hitzartzeko. «Kontsumitzaileek konfiantza handiagoa izango dute, eta neurriak eraginkorragoak izango dira».

Urteko batzarra egin berri duzue. Nola igaro da 2005a?

Oso urte zaila izan da, gai ugari izan baititugu esku artean. Urtearen hasieran esnearen prezioa nabarmen jaitsi nahi izan ziguten, baina Iparlaten aurrean hamar egunez protesta egin ondoren, merkatzea apirila arte atzeratzea eta irailetik aurrera jaitsiera hori bertan behera gelditzea lortu genuen. Hiltegiekin ere buru-belarri jardun gara, eta azkenean Oñatiko hiltzeak zerbitzu publikoa ematen jarraitzea lortu dugu. Era berean, Rafa Uribarrenek hartu du Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza diputatu kargua, eta harremanak asko aldatu dira. Elkarrean autonomia mantentzeko ahaleginak egiten ari gara, eta urte bukarean Emakume Baserriarren Elkarteari azokak sustatzeko kanpaina abian jarri genuen.

Zer helburu duzue 2006rako?

Zentzu berean ariko gara. Uda-baserraren etorrerarekin esnearen prezioa jaitsi nahi digute eta ahalik eta gutxien merkatzeko ahaleginak egingo ditugu, jaitsiera udazkenean bertan behera gelditu dadin. Baserriarri ziurtasuna eman behar zaio, jende mordoak sektorea utziko du, bestela. Duela 15 urte baino %90 esne ekoizle gutxiago daude. Gizartea ohar-tu gabe, isilean, esne ekoizleen %90 desagertu egin dira.

Gipuzkoako EHNEen bertan aldatetarik egin al duzue?

Ez, alde horretatik ez da aldatetarik izan. Hala ere, garbi dugu sektorearen arazo guztiei aurre egiteko lau herrialdeetako sindikatuek elkartuta lan egin behar dugula, eta elkar-gune hori indartzen ari gara. **Nekazaritza Politika Bateria-aren ordainketa bakarra ere indarrean sartuko da aurrerakoa.**



GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

ten. Ekoizten ez duen baserri-tarrak ere hartuko ditu diru laguntzak hainbat sektoretan. Ez al da ekoizpena bertan behera uzteko gonbita?

Orain arte, Nekazaritza Politika Bateria ekoizpenean eta prezio apaletan oinarritu da, baina eredu horrek porrot egin du. Elikadurako eskandaluei erreparatu, bestela. Ez dute kalitateko ekoizpena bultzatu, eta behi eroak, dioxinak eta horrelakoak etorri dira. Orain, irudia aldatzeko ahaleginetan, laguntzak lurrari lotu dizkiote, baina ez dute lurrari lotutako nekazaritza bultzatzen. Ez dute ekoizpen orekatua helburu. Europako soberakinak kanpora ateratzeko laguntzak eman beharrean, dirua baserriarri ematea erabaki dute, ekoizten ez badu ere. Era horretan, epe laburrean ekoizpena ber-

tan behera uztea eta soberakinak murriztea lortuko dute. Helburua ez da baserriarrik diru gehiago irabaztea, Europak dirua aurrezteak baizik.

Eusko Jaurlaritzak ezer egiteko aukerarik ez duela dio.

Guk tartea badagoela uste dugu, baina Eusko Jaurlaritzak Europako politikaren biderei eusten dio. Salmenta zuzena eta kate motza aldarrikatzen ditugu, baina Jaurlaritzak ez du inondik inora horrelakorik ikusten. Sektorea aintzat hartu behar du, eta, beraz, EHNE kontuan hartu, sektorearen gehiengo ordezkatzen duela. Bizkarra emateak ondorio larriak izango ditu. Herrialdearen %80 kudeatzen dugu, eta baserriarrik desagertzen badira, ingurune berde honi eusteko askoz ere diru gehiago behariko da. Baserriarri bere

produktuak duela 20 urteko prezioan saltzen ari da, kostuak nabarmen handitu arren. **Salmenta zuzena aldarrikatzen duzue. Sektorekako mahaiak ez al dira hori lortzeko tresna egokia?**

Mahai horietan arazo guztiez hitz egin behar litzateke. Kontsumitzaileak zer prezio ordaintzen dituen ikusita, baserriarrik zenbat hartu behar lukeen ere eztabaidatu behar da. Maiz baserriarrik hartzen duen prezioa baino hiru aldiz gehiago ordaintzen du kontsumitzaileak. Orduan, nork irabazten du diru hori? Nork lortzen du errentagarritasunik handiena?

Gizarteari galtzen ari denaz ez ohartzea egotzen diozue... Hedabideetan zabaltzen da baserriarriaren irudia, baina uste dugu gizartea ez dela egoeraz

ORDAINKETA BAKARRA

«Helburua ez da baserriarrik diru gehiago irabaztea, Europak dirua aurrezteak baizik»

PREZIOAK

«Maiz baserriarrik hartzen duen prezioa halako hiru ordaintzen du kontsumitzaileak»

jabetzen. Sektorea motel dago, baina produkturik oraindik ez da falta. Prezio apalekin ari gara lanean, eta errentagarriak izateko, lehen ekoizten zen halako hiru ekoizti behar dugu orain. Baserriarrik gutxiago gaude, baina oraindik ez da produkturik falta.

Bertako produktuak desagertzeko arriskua badagoela uste al duzu, ba?

Errentagarritasuna gero eta apalagoa den heinean, produktuak desagertzen hasiko dira. Egoeraz orduan jabetuko da gizartea, baina beranduegi izango da. Alarma gorria piztuta dago, eta egoera ez bada aldatzen, sektorea hil egingo da, isilean. Bertako produktuak aurkitzeko arazoak izango dira orduan. Konfiantza apalagoko jangaiak eta ingurumenean arazoak izango dira; sasiak, lur zikinak eta suteak tarteko.

Udaberriari gaude eta laster etorriko da uda. Aurreko urteotako lehorreak errepikatzen badira, zer?

Arazo izugarria izango dugu. Kontuan izan azken hiru urteotan lehorre handiak izan ditugula, eta ondorio ekonomikoak izugarriak izan dira. Baserriarrik bizi denari nabarmen eragin dio, eta aurreko gauza bera gertatuz gero, egoera are gehiago kaskartuko da. Gainera, administrazioek ez dute hartu inolako neurririk. Epe laburrean, diru laguntza zuzenak eta egiturazko neurriak aldarrikatzen ditugu, baina ez dute ez bata eta ez bestea egin. Espero dugu 2006an, gutxienez, eguraldiak lagunduko gaituela.

Eta hegazti gripea iritsiko al da Euskal Herrira?

Ez dakit. Hasieran baino gertuago dago. Dena dela, oraingoz badirudi ez dela etorriko, migratze garaia omen baitira arrisksutsuenak. Udazkenean ikusi behariko. Neurriak sektorearekin batera hartu behar lirateke; bi arrazoirengatik: kontsumitzaileak konfiantza handiagoa izango duelako eta, finean, neurriak eraginkorragoak izango direlako.

LEITZA ▶

Eneko Aizpuru presoari ongietorria

Martxoaren 30ean 60.000 euroko bermea ordaindu ondoren, aske gelditu ziren Oier Oa eta Eneko Aizpuru leitzarra. Hori dela eta, bihar, 19:00etan, Donostiako Gros auzoko Biteri Plazan ongietorria egingo zaie. Joan den uztailan, Baionan atxilotu eta Madrilera estraditatu zuten Aizpuru.

ANOETA ▶

Ezker abertzaleak batzarra egingo du, bihar

Ezker abertzalea eta prozesu demokratikoa gaia jorratuko duten biharko batzarrera joateko deialdia egin du ezker abertzaleak, 10:30ean, Anoetako udaletxean. Bertan egoera politikoaren azterketa eta prozesu demokratikorantz eman beharreko urratsak aztertuko dituzte.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
 - ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
 - ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
 - ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
 - ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
 - ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
 - ▶ **Ibarralde.** Osasun etxea: 672411
 - ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
 - ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
 - ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
 - ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
 - ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
 - ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amarozk disp.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
 - ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurrarmendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

TOLOSA ▶ GIZARTEA

Hirigintza mintzagai Naturgintzako jardunaldietan

Bost egunetan zehar, hainbat aditu igaroko dira Tolosako Kultur Etxetik, garapen jasangarriaren eta egungo arazoengatik hitz egiteko

ESTI EZEIZA

Egun, gizadiaren %50a baino gehiago hirietan bizi da. Hori dela eta planetaren baliabideen ustiakuntza ere konzentratu egin da. Honekin lotuta, eta *Hirigintza sostengaezina* izenburupean, natur jardunaldiak antolatu ditu Naturgintza Fundazioak.

Atzo, Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean Sole Martin Naturgintzako ordezkariak, Iñigo Royo jardunaldietako kartelaren egileak, Luis Txillida Txillidaleku museoko Zuzendariak, Aitor Aranguren Al-dundiko Garapen Jasangarriko departamentuko zuzendariak, Rafael Uribarren Eusko Jaur-laritzako Osasun saileko ordezkariak eta Jokin Bildarratz Tolosako alkateak aurkeztu zuten ekimena.

Sole Martinek ireki zuen aurkezpena, eta jakinarazi zuenez, aurtengo jardunaldiak berrikuntzekin datoz, Tolosan ez ezik, Arrasate eta Txillida Leku Museoa ere eskainiko baitira. Honela, «Gipuzkoa guztira zabaldu ahal izango da informazioa». Ondoren, Bildarratz alkatea hirigintza eta espekulazioaren merkatuaren inguruan mintzatu zen; bere ustetan, «aurtengo honetan, bete-bete asmatu dute gaiarekin», lege-biltzarrak ekainean onartuko baitu lurzorua lege berria, —dagoeneko tramiteetan dago—. Bestetik, gaineratu



Atzo, Koldo Mitxelena Kulturunean egindako aurkezpena. E. EZEIZA

zuen «espekulazioa saihestu beharra dago» eta «diru etekin ikaragarriak tarteko, hiriak ikaragarri ari baitira hazten». Hizeketaldian bi galdera mahairatu zituen Bildarratzek. Batetik, espekulazioaren aurrean, beharrezko neurriak hartzen ari ote diren eta, bestetik, ondorengo gazteek non erosi beharko dituzten etxebizitzak, izan ere, «prozesu errezena ari gara egiten: eraiki, eraiki eta eraiki, etxe ugari hutsik dauden bitartean». Honen aurrean, «etxebi-

tza izatea eskubide bat dela adierazi zuen eta erregulazio bat eman beharko litzatekeela gaineratu. «durzorua mugatua baita».

Jardunaldi hauetarako aurkezpen kartela Iñigo Royo argazkilaria tolosarrak egin du. Irudi honekin, hitzaldietan zehar jorratuko diren gaiekiko duen ikuspegia adierazten du. Kartekin osatutako piramideak naturak haizegailuarekiko duen ahultasuna erakusten du irudian.

EGITARUA ▶

Jardunaldiak Tolosako Kultur Etxean izango dira, 20:00etan. Halaber, aste osoan erakusketa izango da Kultur Etxean, Tolosan ez gauzaturiko hirigintza proiektu batzuen inguruan.

APIRILAK 24, ASTELEHENA

Hirigintza eta historia: Tolosako kasua.
Hizlaria: Angel Martin.
Aurkezlea: Juan Goñi.

APIRILAK 25, ASTEARTEA

Hiria eta lurraldea. Mahai ingurua; hizlariak: Kike Amonarriz, Andoni Egaña, Santi Eraso eta Mikel Iriondo.
Aurkezlea: Irene Larraza.

APIRILAK 26, ASTEAZKENA

Emakumea eta hiria: Sostengearritasun afektiboa. Hizlariak: Teresa del Valle eta Isabela Velazquez. Aurkezlea: Arantxa Urretabizkaia.

APIRILAK 27, OSTEGUNA

Norentzat dira gure hiriak? Hizlariak: Ramon Lopez de Lucio eta Salvador Rueda.
Aurkezlea: Kepa Korta

APIRILAK 28, OSTIRALA

Ingurumena beti tartean. Hizlariak: Joaquín Araujo eta Antonio Fraguas.
Aurkezlea: Jokin Bildarratz.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Autoa. Lau urteko Seat Toledo TDI-a. 53.000 kilometro. Urte beteko garantiarekin. Telefonoa: 943 11 77 54.

GALDUTAKOAK

Txakurkumea. Hispanier txakurkume zurri-beltza desagertu da Belauntzan. Informazioa eskertu eta sarituko genuke. 689 89 24 34.

LANA

Sukaldaria. Lekunberriko taberna batean sukaldaria behar da. Deitu 948 50 40 05 telefonora.

IBARRA ▶ KULTURA



Ikuskizun txundigarria Txan magoak

Erredakzioa ▶ Ibarrako Kultura eta Gazteria Batzordeak antolatutako ekitaldien barruan, Txan magoaren emanaldia izan zen atzo. Gaur, berri, amaiera emango zaie jardunaldiak, Angel Alkain aktoreak egingo duen *Asto bat hipodromoan* ipuinaren kontaketaekin. Hau ere, Benito Izagirre Kultur Etxean izango da 11.30etik aurrera. I. GARCIA

NEREA TXAPARTEGI ▶ '18/98 AUZIAN' INPUTATUA

«Inkomunikazioan egindako deklarazioa torturapean egin nuela azaldu dut»

Nekane Txapartegi asteasuarrari «oso gogorra» egin zaio torturei buruz deklaratzeari

I. GARCIA

Nekane Txapartegi asteasuarrari azkena izan da 18/98 auzian eskualdeko hiru inputatuetatik deklaratzeko. Batez ere inkomunikatuta eman zituen bost egunetan «jasandako torturak» eman zituen aditzera: «poltsa, elektrodoak, buruan tiro egitearen itxura, kolpeak etengabe, emakume gisa umilatu eta bularrak lizunki ukitu eta bortxatu». Herenegun arra-

tsaldean egin zuen deklarazioa eta arratsalde horretan bertan elkarretaratzea egin zuten Asteasun eskualdeko hiru auzipetuei—Mikel Egibar, Joxe Mari Olarra eta Nekane Txapartegi bera—elkartasuna adierazteko.

Zein izan da zure sentsazioa deklarazioa egitean?

Oso gogorra izan zen publikoki bost egunetan bizitutakoa baieztatzea. Orain zazpi urte bizitutako egun horietara buel-

tatu behar izan nuen; lekuan jartzen zara berriro eta benetan gogorra izan zen.

Zer jarrera ikusi zenuen epaimahaian torturak salatzerakoan?

Nahiz eta aurretik torturen salaketa egin dudana, ez didate kasurik egin epaitegietan. Atzo [herenegun] torturen deklarazioa gaztelaraz egin nuen, itzulpengintza sistemak bizitutako emozio guztiak behar bezala adierazteko ez zue-

lako bermatzen. Epaimahaioak adi egon ziren, entzuteko jarrerara zutela iruditu zait.

Zein izan da deklarazioaren helburua?

Inkomunikazioan egindako deklarazioa torturapean egin nuela azaldu dut. Zer tortura jasan nituen eta nola deklarazioa buruz ikastera behartu ninduten adierazi dut.

Eta hemendik aurrera, zer?

Beste bi auzipetu falta dira deklaratzeko eta ondoren akusa-



I. GARCIA

zio partikularren lekukoek deklaratu dute. Epaia guztienez uztaila arte jarraituko duela abisatu digute epaitegitik. Dagoeneko bost hilabete igaro dira eta bizitza zaituta daramagu, aste erdia Madrilen eta bestea etxean egiten dugulako. Horrela oso zaila da bizitza antolatzea.

VILLABONA ▶ ANTZERKIA

'Erreleboa' antzezlan, berriro Gurean

Iker Galartza eta Joseba Usabiaga aktore tolosarrek antzezten dute

IMANOL GARCIA

Erreleboa antzezlan berriro ikusteko aukera izango dute bilabonatarrek zein eskualdekoek. Gaur izango da emanaldia, Gurea aretoan, 22:30ean hasita. Sei euro balioko ditu sarrerak. Iker Galartza eta Joseba Usabiaga tolosarrek antzezten dituzte obraren protagonistak, soldaduska egiten ari diren bi euskaldun, 1985. urtean. Garrantzi topa egiten dutenean, lehengo eguna da batentzat eta soldaduska amaitzeaz dago bestea. Antzezlan «entretengarria eta eramangarria» dela

adierazi dute bi aktoreek, irauten duen ordu eta laurdena «erraz» pasatzen dela. Biek nabarmetzen dute barre egiteko aukera izango dutela ikus-entzuleek.

Hogeigarren emanaldia izango da gaurkoa. Abenduan hasi ziren eta hilabete hauetarako antzeppen ugari direla azaldu dute. «Ez da erraza antzerki munduan hainbeste emanaldi izatea. Ondo baino hobeto ari da joaten. Jendea gustatzen zaion seinale», dio Iker Galartzak. Aspertzeko aukerarik ez dute izan. «Testua irakurri ondoren bagenekien



Iker Galartza eta Joseba Usabiaga, obraren une batean. HITZA

oso obra polita izango zela», azaldu du Joseba Usabiagak. «Antzerkia, zuzenean egiten denez, ez da behin ere errepikatzen, beti zerbait ezberdina suertatzen da», gaineratu du Galartzak.

Azkenaldian maiz ikusten dute elkar bi aktoreek, *Erreleboa* obran ez ezik, *Goenkale* saioan eta Poxpolo, Mokolo eta

konpainia pailazo taldean ere batera aritzen direlako. Harreman estua dutela azaltzen dute eta ondo ezagutzeak lanerako asko balio duela ere bai. Eskualdean antzezteak beste arduratzen bat suposatzen duela diote: «Familia, laguna, jende ezaguna joango da eta horrek puntu berezia ematen dio taula gainean zaudenean».

ELDUAIN ▶

Eguesek esan die epaileei «prozesua ez oztopatzeko»

Espainiako Auzitegi Nazionalean epaiketa izan zuen atzo Elduaingo presoak

ERREDAKZIOAK

Ana Belen Egues elduaindar preso politikoa Espainiako Auzitegi Nazionaleko epailei «prozesua ez oztopatzeko» eskatu zien atzo, Aitor Garcia Aliagarekin batera izan zuen epaiketaren amaieran. Askatasunak zabaldu duenez. Bizikleta-bomba bitartez Oreja Pedraza brigada-generalen hilketa leporatzen diete bi presoek.

Eguesek eta Garciak ez zuten deklaratu epaiketan, epaitegia ez baitute onartzen «aurreko franskismoaren tribunalaren segida delako».

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

BERASTEGI ▶ INGURUMENA

«Berastegi garbi eta txukunaren alde», Uli aldea garbituko dute

Aldin kultur eta kirol elkarteak bere egitasmoekin jarraituz, bihar 09:00etan du hitzordua egina herriko plazan bertan

JAIONE ASTIBIA

Bihar goizerako deialdia egin du Aldin elkarteak: Uli aldeko mendia garbitzera joan dira, urteko egitasmoen barrenean, *Berastegiko mendiak garbi* lelopean burutuko dutena. 09:00etan Berastegiko plazan biltzeko deia egin dute, hain zuzen, herritar guztientzat.

Aldinek ekintza hau antolatatu du «Berastegi garbi eta txukunaren alde» egindako urrats gisa eta bide horretan herritar ororen parte-hartzea garrantzitsutzat eta beharrezkotzat jo dute. Azaldu dutenez, «denek onartzen dute Berastegi herri ederra» dela; horretaz ohartuta, «inguruko mendietatik edo autobideko atsedan lekutik ikus daitekeen ikuspegia zora-garria» dela baieztatu dute.

Baina «gerturatu ahala, ikuspegia itsusitzen duten hainbat gauza» ikusten direla adierazi dute, «herriaren inguruan, baserri inguruetan, mendiko bideen inguruetan...». Hainbat galdera egin dituzte eredu gisa aitatuz. Hala «baserri inguruetan dauden kotxe zaharrak, dozena batzuk» izanen direla ziurtatu dute: «Ez ote da errazagoa eta garbiagoa, kotxe baten bizitza bukatutakoan hauek desgiteko toki batera eramatea?».

Ez dute ulertzen, bestalde, gaur egun mota guztietako zaborrak behar bezala jasotzeko aukera dagoenean, «mendietako hainbat tokitan hozkailu, garbigailu, telebista edo sukaldeak botata ikustea». Bide bereetik, mendiko garbitasunean duen ondorioagatik, ehizaren eragina ere nabarmendu dute elkarteak ordezkariek. Izan ere, «askotan paradak berri-tzean material zaharrak inguruan utzi izan dira, nahiz eta ehiztarien legeak bestela agindu: kartutxoetako azalak, kaxak, plastiko poltsak, botilak... ikusten dira».

Herritar guztientzat bada, beraz, non hobetua. Zentzu horretan Aldin elkarteak hainbat proposamen egin ditu.

«Guztien eginkizuna»

Batetik, «legez aurkako zabor-tegi klandestinoak galerazteko» eskaera egin dio Udalari Aldin elkarteak. Herrian baimenduriko zaborte-girik ez dagoenez, beren ustetan egokia izanen litzateke «etxeetara bando bat bidaltzea», sortzen diren zabor mota guztiak nora bideratu daitezkeen argitu aldera.

Ehiztari elkarteari ere helarazi diote proposamena, «ehiza legea betetzea» besterik ez

dena. Baserritarrei eta etxe jabeei, berriz, «inguruak garbi eta txukun zaintzen saia daitezten» eskaera egin diete. Orohar, «herritar guztiei, Berastegi ederrago izateko denon ahaleginaren beharra» dagoela adierazi nahi izan diete.

Hain zuzen ere, bide horri ekinez, bihar plazan elkartu eta kasu honetan, Uli aldera joanen dira, hango inguruak garbitzera: Arrateko zentral ingurua, Antsolizko erreka... Traktoreak eta erremolkeak ere



Uli inguruan, Antsoliz erreka bazterren itxura, duela 15 egun. HITZA

beharko direla jakinarazi dute. Hauek bete ahala, herriko plazara ekarri eta hor hustuko omen dituztela eman dute jaki-

tera, «komenigarri» iruditzen baitzaie herritarrek mendietan dagoen zaborra nolako den ikustea.

ULERTZEKO GARAI BERRIA

berria²

 TOLOSALDEA GOIMAILAKO I. N. INSTITUTUA 			
FORMAKUNTZA IKASTAROAK (Langileentzat) KUALIFIKAZIO PROFESIOALEN SISTEMA – KATALOGO MODULARRA			
IKASTAROA (KREDITO FORMATIBOA)	ORDUAK	HASIERA	ORDUTEGIA
AIRE GIROTU-ko instalazioak muntatzea	40	2006-04-26	18 - 21
Berokuntza-instalazioak muntatzea	40	2006-04-26	18 - 21
CAM (Abia handiko Mekanizazioa – Unigraphics)	20	2006-04-26	18 - 21
ETXEBIZITZA instalazio elektrikoak	60	2006-04-26	18 - 21
Artezteko makina zilindrikoaren mekanizatzea	30	2006-04-26	18 - 21
NEUMATIKA-ELEKTRONEUMATIKA	40	2006-05-02	18 - 21
Automatismo elektroteknikoak (KOADRO ELEKTRIKOAK)	40	2006-05-02	18 - 21
KALITATEA-ren Erramintak	20	2006-05-02	18 - 21

Matrikula eta informazioa: Telefonoa 943 65 11 47 - Santa Luzia, 17 - 20400 TOLOSALDEA
idazkaritza@tolosaldea.com • www.tolosaldea.com

Harpidedunei banatua ▶ 2006ko apirilaren 21a, ostirala ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez arratsaldez



beroena 13 hotzera 10



BIHARKO EGURALDIA

goizez arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

943 30 43 46

(zaintzak argitzeko, harpidedun egiteko...)

Gipuzkoako Foru Aldundia Eusko Jaurerria Kultur Saila

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Abaltzisketa. Enkarni Genuaren *Eman eta gero* antzerki emanaldia Kultur Etxean 17:00etan.
Bedaio. Asteburu kulturala antolatuta dute gaur, bihar eta etzi. Gaur: 21:30ean zinekluba. Bihar: 16:00etan errotara bisita; 18:00etan umeentzat dantza ikastaroa, eta ondoren taloak egitera elkarteak; 20:30ean afaria. Etzi: 09:00etan ibilaldia Azkaratetik, eta ondoren bazkaria. Bestalde, gaur eta bihar ikusgai izango dira Balentina Jauregiaren koadroak elkarteak.
Ibarra. Angel Alkainen eskutik *Asto bat hipodromoan* ipuin kontaketa saioa 11:30ean Benito Izagirre kultur etxean.
Zizurkil. Aurrera taberna Lauroba taldeak kontzertua eskainiko du, 23:00etatik aurrera. Sarrera doakoa izango da bertaratzen diren guztientzat.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
 Leitza. Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.
 Tolosa. Tolosa M.I. Kalen Nagusia 7. 943 67 06 48.

IRRATIA

Txolarre irrattia (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren errepaso, agenda, elkarrizketak, albisteak, lehiaketa, disko eskainiak...
 19:00-21:00. Tolosaldeko ahotsa (errepikapena).
 21:00-22:00. Zaharrak berri, Hala Bedi irratiaren saioa, Arrosa Irrati Ekoizpen Zentroaren eskutik.
 22:00-23:00. Arkako show musika saioa.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

Loreen usain eta kolore arrastoak Asturias aldetik

ASTURIAS ▶

Monika Mora (Hernani).

Asturias (Espainia) aldean izan da Monika Mora hernaniarra Aste Santuko oporretan. Ondorengo argazkia aukeratu du III. HITZA Argazki Lehiaketarako, «oso deigarria» irudituta baizitzaion:

«Argazki hau Asturiasen ateratakoa da. Bertako herri txiki bateko elizaren orma ondoan dagoen zuhaitzak atentzioa deitu zigun bere hostoen koloreengatik eta enborraren formagatik».



AGURRAK ▶



ZORIONAK

Martin eta Bittori (Orexa).
 Urrezko ezteietan zorionak familiaren partetik.



URTE ASKOAN

Eñaut Gurrutxaga Etxeberria (Tolosa). Etxeko guztien partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZaren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZaren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

hitza agurren tarte

Urtebetetzak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

